

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ONDARE ZERBITZUA

Laudion desgaitasuna duten pertsonentzako Aiara Koadrilako eguneko zentrorako eta egoitzarako higiezin bat erosteko lizitazio-deialdia, europar batasunak finantzatutako Next Generation EU berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren esparruan

Foru Gobernu Kontseiluaren 567/2022, irailaren 27ko, Akordioaren bidez, lehiaketa bidezko lizitazio publikorako deialdia onartu da, desgaitasuna duten pertsonentzako Aiara Koadrillako eta egoitzarako higiezin bat erosteko Laudion, Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1. Deialdiaren xedea: Arabako Foru Aldundiak higiezin eraiki bat salerostea, desgaitasuna duten pertsonentzat arreta integrala emateko zentro gisa erabiltzeko.

Zentro integrala, eguneko zentroa eta 16 plazatarako laguntza duen etxebizitza denez, eta baliabide desberdinak hartuko dituen, lokal, finka edo eraikin bakarra izan daiteke, edo hainbat elementuz osatua egon daiteke; kasu horretan, elementu horiek elkarren ondokoak izan beharko dute.

2. Lizitazio mota: 2.175.000,00 euro.

3. Lokalaren gutxieneko azalera: 850 metro karratuak.

4. Bermea: lizitazioan parte hartzeko,

– Behin-behineko fidantza. 1.000,00 euroko lizitazioan parte hartzeko.

– Behin betiko fidantza. Kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko 20 (hogei).

5. Baldintzen plegua: interesdunek eskuragarri dute honako helbide hauetan:

– Ondare Zerbitzua (Samaniego kalea 14-4. solairua, Vitoria-Gasteiz).

– Arabako Foru Aldundiaren webgunea: www.araba.eus.

6. Eskaintzak aurkezteko lekua: Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorra (Probintzia plaza 5-behea, Vitoria-Gasteiz). Proposamenak postaz ere bidali ahal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. Eskaintzak aurkezteko epea: hogeita hamar egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, epea amaitzen den eguneko 14:30ak arte, salbu eta jaieguna bada, orduan hurrengo egun baliodunera arte luzatuko baita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a

Ondare Zerbitzuaren burua

LUIS ALBERTO VALDOR FERNÁNDEZ